

BERRIGARA

160. zenbakia JARDUN Elkartea Bergara 1994, irailak 8

COCOTE MERLUZA	650
MERLUZA ENTERA	500
LOMO MERLUZA	900
CENTRO MERLUZA	900
FILETE MERLUZA	680



Oxirondoko merkatua zabalik

Autoberezi

FIAT

Alfa Romeo



ANTIGUA AUZOA, ANTZUOLA (GIPUZKOA)

☎ 76 62 10 / 76 62 75



GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, ZUBIZARRETA,
ZULUETA, ESTEFANO, LABORRA eta RUIZ DK.ak

- Azterketa ginekologiko osoak
- Minbiziaren aurretiko diagnostikoa
- Haurdunaldiaren kontrola
- Txekoak
- Bularretako gaitzen unitatea
- Mamografiak
- Antzutasuna
- Antisorkuntza
- Menopausiaren tratamendua
- Dietak
- Sudurra, eztarria, belarria
- Analisi klinikoak

**GUZTI HAU
ARRASATEN
BERTAN,
URRUTIRAGO
JAON BARIK**



Zerkaosketa, 17 behea
ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18



Miguel ALTUNA (ELEMENTALA)

institutua

BERGARA

HEZKUNTZ ESKAINNTZA

- **REM:**
 - Goi Mailako Batxilergoak
- **BTI (Batxilergo Tekniko Industriala)**
- **BAG (Batxilergo Administratiboa)**
 - LH II (Lanbide Heziketa II)
- **ADMINISTRATIBOA**
- **ELEKTRIKO-ELEKTRONIKOA**
 - **MEKANIKA**
 - Modulo Profesionalak III
 - Mekanikagintza
 - Enpresen administrazioa

MATRIKULA EPEA ZABALIK!!

Ordutegia: 9.00-13.00 Argibideak: Ibargarai, 1 ☎ 76 24 92 / 76 38 40

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara.

Tfnoa eta faxa: 76 03 97

Argitaratzailea:

Jardun Elkarte

Masterreka, 13. 20.570 Bergara.

☎ 76 08 19

Zuzendaria:

Gorka Elorza.

Erredakzioa:

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil eta Mikel Elkorobezibar.

Maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo Mendibil.

Publizitatea eta harpidetzak:

Alex Azkarate eta Gorka Elorza.

☎ 76 03 97

Kolaboratzaileak:

Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkorobezibar, Alex Labaien, Iñaki Eraña, Juan Martin Elexpuru, Josu Oregi, Maripi Laskurain, Nerea Alzelai, Ainhoa Lete, Jon Ander Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Aitziber Aretxaga eta Ainhoa Bikuna.

Komikia eta marrazkiak:

Bittor Rodriguez, Gorka Ortega, Jon Alvarez, Jose Martin Ezenarro eta Julian Ezenarro.

Banaketa:

Txantxangorri Taldea.

Tirada: 3.700 ale.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

Copyright: BERRIGARA

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599


BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E R B E R R I D A ?

XABIER ARANBURU

Udal Museologoa



- **Turismorik izan al da gure herrian uda honetan?**

- Nik esango nuke uda aurretik kaleratu genuen foiletoak arrakasta izan duela. Bere funtzioa jendea erakartzea zen eta, beste urte batzurekin konparatuz, jendea etorri da. Jende desberdin askok eta dendariak beraiek ere hori komentatu didate. Asko etorri omen dira Zaragoza eta Barcelonatik. Donostiara ere Zaragoza, Madril eta Barcelonatik dator jende kopuru gehiena.

- **Zeintzuk dira eman beharreko hurrengo pausuak?**

- Ikusi dugu jendea etorri dela eta, hasieran geneukan planarekin jarraituz, zerbitzu bat eskeini behar zaio

jende horri, bisita gidatuak antolatuz eta turismo bulego bat eskeiniz. Honekin lotuta, datorren irailaren 22an, Udalak eta Oñatiko Turismo bulegoak turismo profesionalei zuzendutako bisita gidatu batzuk antolatu dituzte; martxan jarri nahi den zerbitzu horren oinarria izango denarekin zer eskeintzen duten jakin dezaten.

"Beste urte batzurekin konparatuz nahiko jende etorri da aurten"

I T U R R I O N E T I K

Real-Eibar urriaren 12an Julian Bernalen alde

Real Sociedad eta S.D. Eibar futbol taldeek Julian Bernal bergararraren aldeko adiskidetasun partidua jokatu dute datorren urriaren 12an Agorrosin futbol zelaian. Gogoratu behar da Julian Bernalek, gaisotasun baten eraginez, bi hankak galdu ditu eta bere lagunek omenalditxo hau prestatu diote sos batzuk ateratzeko asmoz. Beraz, urriaren 12an Gipuzkoako bi futbol talde nagusiek goi mailako futbola ekarriko dute Agorrosinera. Futbolzale eta herritar guztiek Julian Bernali beren laguntza eskeintzeko aukera proposa izango dute.

ESAN DUTE

"Parte Zaharreko biztanlegoa Donostiako zaharrena izateak kezkatzen nauen? Gehien kezkatzen nauena haurrak dira, orain ez baitira ikusten elizan, eta hau noski gurasoengatik da. Gazteek auzotik joan egin behar dute etxebizitzak oso garestiak direlako. Eta azkenik, bakarrik bizi den zahar ugari dago eta zailtasun handiak dituzte, laguntza mailan, eskailerak ezin igo..."

FELIX GARITANO
Donostiako San Bizente elizako parrókoa
IRUTXULO ALDIZKARIA

"Humboldt, Goethe, Astarloa, Mogel, Unamuno eta beste idazle askotaz zenbat ohar eta zenbat argibide! Paregabeko erudizioa zen harena. Burrustan zerion jakituria eta guztia nahi zuen eman eskuzabal, geroko utzi gabe. Horra zergatik falta den maiztxo barne-lotura haren idatzietan" [Justo Garateri buruz].

ENDRIKE KNÖRR
Idazlea
EGUNKARIA



LOS PICAPIEDRA

Osteguna: 22.30.

Ostirala: 17.00, 19.30, 22.30.

Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30

(Ikuslearen eguna).



Zinea

▼▼ Aurtengo denboraldiko arrakasta nagusienetarikoa **Los Picapiedra** lagun zaharrena dugu. Benetan karakterizazio bikaina lortu da Pedro, Pablo, Betty eta Wilma marrazki bizidunetatik zine pantailara eramaterakoan. **Brian Levantek** zuzenduta, **John Goodman, Elizabeth Perkins, Rick Moranis** eta **Rosie O'Donellek harri aroko** istorioak aurkezten dizkigute. *Aro jurasikoa* gaingiduta omen dago... Yabba-Dabba-Doooooo!!



Deiak

▼ **Mafarroa Oinezera** autobusa. Izen-ematea Aranzadi Ikastolan eta Udaleko Euskara Zerbitzuan.

▼ **Bertso jaialdia** hilaren 17an Mariaren Lagundian. Sarrerak (600 pta. aurrez, 700 takilan) Etxepare, Pol-Pol, Kortazar eta JARDUNen.

▼ **Kilometroak 94ko** materiala saltzeko denda Alargunen ondoan zabalik datorren astetik, 17.00etatik 18.30etara.



Ogia

▼ **Ostirala 9:** Ogizun.

▼ **Igandea 11:** Mizpildi.



▼▼ **Aire Zabaleko Pintura Lehiaketa** jokatuko da igandean goizeko 9etatik aurrera. Edozein adineko artistek parte hartu ahal izango dute eta lanak ordubiak baino lehen aurkeztu beharko dira. Sari banaketa larunbatean bertan, 18.30etan, egingo da Kultur Etxean. 15.000 pta.ko 10 sari emango dira. Erakusketa irailaren 11tik 18ra egongo da ikusgai.



GOARDIAKO FARMAZIAK

▼ **Ostirala 9:** Guallar.

▼ **Larunbata 10:** Estella.

▼ **Igandea 11:** Estella.

▼ **Astelehena 12:** Guallar.

▼ **Asteartea 13:** Estella.

▼ **Asteazkena 14:** Camacho.

▼ **Osteguna 15:** Estella.

ANTIA

ARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

INFERNUKUA TABERNA

Mahasterreka 23, Tfnoa: 76 18 49

MUJJIKA

Burdinaki denda

Bidekurutzeta 8

☎ 76 28 67

BERGARA

**A
R
R
A
N
O**



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

AURREKARGAKO ARMEKIN

Plater tiraketa

Larunbatean eguerdiko
12etan Gorlan

San Martin jaietako programari hasiera emanez, larunbatean eguerdiko 12etan Aurrekargako Armeekin IV. San Martin Plater Tiraketa jokatu da Gorlako kantina inguruan. Antolatze lanean ibili den Jabier Linazisorok aipatudigunez, "25 bat tiradore inguru izango gara larunbatean: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta baliteke Nafarroatik ere baten bat etortzea. Benetan oso espezialitate ikusgarria da hau: bonelako armak aurrekaldetik kargatu behar izaten dira eta eskopeta bitxiak aurki daitezke: 1500 urte inguruko armen erreplikak edota 1740-1840 bitarteko orijinalak, Eibar Y grekoarekin idatzita agertzen dela hainbat piezatan. Horrez gain, partaideak antzinako jantziekin datoz eta Felipe II.aren, Oesteko sheriffen edota David Crockett orduko esploradore baten



Partaideak aintzinako eskopeta eta garaiko jantzi dotoreekin ikusi ahal izango ditugu. Argazkian, Jabier Linazisoro (eskumatik hasita bigarrena) beste lau lagunekin.

antzera (ni neu) jantzita agertuko gara".

Jabier Linazisororen ustetan, "ebizan aurrekargako armeekin egin beharko litzateke, modalitate hau oso deportiboa baita. Kargatzea errito moduko bat da, baketia-ekin bultza egin beharra

dago eta txapelketetan, esate baterako, 25 tiro egiteko or̄dubeteko denbora ematen dizute, prozesua nabiko motela izaten delako. Bestalde, guttiz amateurrak gara eta ez da inolako saririk egoten". Larunbatean, nobedade gisa, azken 5 tiroak guardiako posizioan egin beharko dituzte partaideek.

Laugarren urtea da honako txapelketa bat Bergaran egiten dela. "Egia esan, Udalarena kendu-

ta, laguntza gutxi izaten dut txapelketa hau antolatzeko baina nabiko afizio dago hemen inguruan: Gasteizen, Donostian edota Bizkaian txapelketak egiten dira; Santanderren ere bai, Katalunian afizio haundia dago... Laguntza gehiago izango banu Espainiako Txapelketako probaren bat antolatzeko... baina horretarako hainbat hobe-kuntza egin beharko lirateke" aipatu digu Jabierrek.

**25 partaide inguru
izango dira
larunbatean**



ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

Zuek demokratak?

BERRIGARAK eskaintzen dizkidan lerro hauetatik salatu nahi dut EAJ eta PSE-EEK Euskal presoeri buruzko mozioa salatu ez izana. Zuek hain demokratak sentitzen zarenok, ondotox dakizue, egun, euskal presoek zein egoera bizi dugun, bai estatu frantseseko bai espainiarreko espetxeetan. Esan beharrik ez dago, bertan, gure eskubide oinarrikoenak ere zanpatuak daudela, baita gu geu ere, baina hori ez da larriena.

Zuek demokratak, espetxeetan dituzue ia 80 lagun, hauek dagoeneko kalean egon behar liratekeanean, euren zigorraren 3/4ak bete dituztelako.

Zuek demokratak, 60. artikuluari uko egiten diozue, zenbait euskal preso espetxeetan hiltzen lagata, berauek gaixotasun larri edo sendagaitzak edukiaz, kalean egon behar liratekeanean. Baina ez, zuen demokrazia alu horrek gartzeleratuta dituzte.

Zuek demokratak, Euskal Herria maite duzuela esaten duzuenak ehundaka senide eta lagunek, milaka kilometro egin beharrenden erru guztia daukazue eta gure ahaideei gerta liezaiekenaren erantzunkizuna. Ni bidal nazatela Monterroxo, Canarias edo Australiara, ziur bait nago bertan zigortua baina ondo egongo naizela. Baina horrek ekartzen dituen arazo guztien errua zuena izango da.

Eta egunen batean, Euskalerriratsen bagaitzute, pozik izango naiz, baina ez bertako espetxeetan egoteagatik (nik Euskal Herrian libre bizi nahi dut eta), zeren gure senide eta lagunek ez bait dute gehiago zuen demokraziaren bortizkeria guzti hori pairatu beharko. Zuek demokratak?

**HARITZ EGIDAZU GARAIONDO
MONTERROXOKO ESPETXETIK**

Plazako murala

Gure herriko enparantzara azaldu, Udaltxera begiratu eta obrak ez oztopatzeko jarrirako orman ipinitako murala behin eta berriro begiratzen dut.

Bertan, ingurugiroarekin zer ikusia daukaten zenbait panel ikusi ditzakegu. Egia esan orain ez da gehiegi ikusten, gehienak apurtuta eta gainetik marraztuta daudelako. Batean "Adierazpen askatasuna denontzat" jartzen du. Ez dut ezer ulertzen.

Nire ondoan dagoen lagun batek berehala argitu dit guztia:

- Udaletxearen obrak hasi zirenean orma bat jarri zuten. Berehala herriko talde batek pintada (artistikoa) bat egin zuen. Hurrengo egunean estali egin zuten. Geroago Udalak herriko beste talde bati ormaren "kontsezioa" eman zion.

- Zergatik? Zertarako?

- Pintada bat egiteko, hori bai, beraien aurka bortizki azalduko ez zen pintada bat. Eta zergatia, konplexuagoa da. Udalaren helburua herriko talde eta kolektiboan adierazpen askatasuna bermatzea zen. garbiago esanda, orma horretan "komenigarriak" ez diren pintadak ez azaltzea.

- Uste dut mural horien egilea herriko margolari ezagun bat izan dela.

- Bai, gainera hau da txarrena, zeren Udalak lehen aipatutako taldeari milioi erdi baino gehiago eman zion eta talde horrek margolariari beste horrenbeste.

- Eta beste herriko taldeek nola ikusi dute guzti hau?

- Hasiaran ez zuten zuzenki muralaren aurka jo, baina azkenean eta oso istorio luze baten ostean, ez dute beste biderik izan. Istorio luzea diot, zeren hamaika ekitaldi antolatu dituzte adierazpen askatasuna guztiontzat aldarrikatzeko. Jakin ezazu enparantzako lurrean pintada kolektibo bat egiteagatik zenbait

gazte epaituak izan zirela.

- Eta zergatik diskriminazio hori?

- Politika, badakizu...

- Eta zer dela jarraitzen dute muralak orma gainean hain hondatuta baldin badaude? Oso irudi txarra ematen diote historikoki horrenbeste garrantzi daukan gure enparantzari.

- Hor dago kokka! eta Udalak hori ondotox daki. Hor dagoen bitartean jendeak orman dauden panel izorratuak ikusten ditu soilik, ez du sakoneko esanahia aztertzen, ezta ezagutzen ere eta gaur biok eduki dugun elkarrizketaren helburua hori izan da.

- Eta bukatzeko, zergatik ez diogu Udalarri zerbait eskatzen?

- Ondo da.


Guri ere ez zaigu atsegin gure herriko etxe historikoetan margotzea, gehiago esango dugu, ez zaigu atsegin ormak marraztea (lan asko da, askotan kutsagarria), baina jaunok beste ze irtenbide ematen diguzue?

Baimenarekin eginiko pintaketak ez al dira zikinak?, edo agian kriterio politikoa da zikinak eta garbitasunaren arteko diferentzia? Guztiok gara libre gure ideiak eta pentsakizunak libreki azaltzeko...

(Hauek ahots altuan eginiko zenbait burutapen dira soilik. Egiarekin zerrikusirik badaukate, kasualitate hutsa besterik ez dela zin egiten dut)

NAN: 15.384.220

Tiira biraka



BITTOR RODRIGUEZ

◆ **Aranzadi Ikastola**

Aranzadi Ikastolako Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleek irailaren 12an, goizez, hasiko dituzte 1994/95 ikasturteko klaseak (irailaren 19tik goiz eta arratsalde). Batxilergo eta UBI mailak ikastolan egiteko interesa dutenek irailaren 12ra arte matrikula egin dezakete.

◆ **Ikastaroa**

Zoruen eta isolamenduen instalazioetarako ikastaroan parte hartzeko izen-ematea irailaren 15era arte egongo da zabalik. Interesatuak Irizar Jauregian eman dezakete izena, goizez 9etatik 13etara.

Odol Emaleen Elkarteak odol emale gazteak behar ditu

Eman besteari bizia lemapean, Bergarako Odol Emaleen Elkarteak atzo bertan ekin zion uda osteko odol ateraldiekin. Bertako arduradunek adierazi digutenez, "Bergaran gaur egun 1.100 odol emale inguru dira baina normalean odola ematera etortzen direnak 900 bat herritar dira. Oraindik odol emale gehiago behar dira dagoen eskakizunari aurre egin ahal izateko. 16 urtetik 66 urtera bitartean izan, 50 kg.ko baino gehiagoko pisua eduki eta infekziozko gaisotasunik pasatu ez izana eskatzen da bakarrik. Zalantzaren bat izatekotan, Seminarioko baxuetan dugun lokalera etortzeko eskatu genieke




Odol emateak hilean bi bider egiten dira Seminarioko baxuetan.

interesatuei".

Odol emateak hilean bi bider (asteazkenetan 7etatik 9etara) egiten dira eta urtean zehar emakumeek hiru aldiz eta gizakumeek 4 aldiz eman

dezakete odola; "batez ere gazte jendea falta zaigu gaur egungo transplante eta ebakuntzekin gero eta odol gehiago behar izaten delako".



ARANZADI IKASTOLA

San Martin Plaza, 4 BERGARA
Telf 76 26 76 - 76 56 76 - Fax 76 55 95

1994-95 BATXILERGOA

BBB eta UBIrako MATRIKULA ZABALIK DA

EPEAK: Irailaren 7tik 12ra

TOKIA: Ikastolako Idazkaritzan, San Martin Plazan

ORDUTEGIA:

GOIZEZ: 8.30etatik, 13.00etara.

ARRATSALDEZ: 15.00etatik 18.00etara

Bestetan baino jende gehiago aurtengo abuztuan

Osintxuko Kofraixetan ere aurreko urteetan baino giro hobea

Abuztuan bergarar gehienok oporrak hartu ditugu, baina **udaltzaingotik** adierazi digutenez abuztuan zehar beste urte batzutan baino **jende gehiago** ibili da. Batez ere **kanpotarrak**.

Abuztuko lehen astean **euliek** izan zuten protagonismo nagusia. **San Lorentzo** eta **Matxiategi** auzoetako biztanleek salatu zuten euren etxeak euliz beteta zeuden. Hori ikusiz **osasan teknikari** bat Lapatzako **eperren granjara** hurbildu zen eta bertan gauza batzuk konpondu ondoren euliak, badirudi, oraingoz jai hartu dutela.

Abuztuaren 6an **barianteko zubian** karril berri bat zabaldu zuten. Abuztuaren 22an, Udaltzaingotik adierazi digutenez, 7 gazte inguruk **Mariaren Sierbena** izandako lokalean sartu eta **pintada** egin zuten. Gauean Ertzantzak gazteak **atxilotu** eta komisaldegian izan ziren goizalderarte. Bere aldetik, **Xabier Zubizarreta** parrokoak gazteen aurkako **salaketa** jarri du. Izan ere lokala orain **Santa Marina** parrokiakoa baita. Abuztuaren 23an, aldiz, San Martin ikastetxearen atzekaldean zeuden **lau autobus pintadaz** josita agertu ziren. Pintadetan apaizen aurkako irainak irakur zitezkeen.

Kronikarekin jarraituz

abuztuaren 26an goizeko ordu 2 terdiak inguruan ezezagun batzuk **sua eman** zioten PSE-EEren **Herriko Etxeari**. Ekintza hori Uruguaytik hiru euskaldun **estradiatzeagatik** protestatzeko Euskalerrri osoan zehar egin ziren ekintzen barruan koka daiteke. Herriko Etxeak ez zituen kalte haundiegirik jasan, egoitza barrura ez baitzen sua zabaldu.

Horren aurrean Bergarako PSE-EEK **salaketa komunikatu** bat argitaratu zuen. Bertan esaten zenez, *"Ekintza faszista horren eta Euskalerrrian gertatzen diren beste ekintza batzuren errudun (autobus, kotxe eta egoitza politikoen erre-*

keta, ertzantzari egindako erasoak) HB da". PSE-EEren komunikatuak gehitzen zuen, *"ez ditugu abaztu nabi gure egoitza gainean bizi diren familiak pasa zituzten unetxarrak (euren bizitzak eta etxeak arriskuan jarritz) ekintza kriminal bonen aurrean"*.

Abuztua ondo bukatzeko, Osintxun **Kofraixak** ospatu ziren. Iazkoarekin alderatuz jai batzordetik adierazi digutenez jende gehiago ibili da. Batez ere igande gauean **Lin Ton Taun** rock talde zestoarrak eskeinitako kontzertuan. Osintxuko jai batzordeak Menorkara zozketatutako bidaian 4.049 zenbakia izan zen irabazlea.

Jaiotakoak

- Maddi Mujika Arrizabalaga, uzt. 15.
- Nora Txinturreta Intxausti, 22.
- Mikel Kortabarria Zumelaga, 24.
- Ainara González González, 28.
- Aintzane Conde Sagastume, abz. 7.
- Agustín Morcillo García, 8.
- Mireia Barreiros Lozano, 9.
- Egoitz Markiegi Aranburu, 10.
- Iker Baladron Hers, 12.
- Ainara Gómez López, 22.
- Mikel Burguera Luengo, 26.
- Aritz Gimbert Badiola, 27

Hildakoak

- Antonio Ubierna, uzt. 22. 76 urte.
- Felix Cruz Unamuno, uzt. 22. 62.
- Mariano Elorza, uzt. 28.
- Nicolasa Urzelai, uzt. 31. 69 urte.
- Felisa Muñoa, abuzt. 5. 77 urte.
- Vicente Pildain, abuzt. 8. 75.
- Rafaela Garitaonandia, ab. 10. 72.
- Jose Maria Gamba, abuzt. 10. 59.
- Felix Aranburu, abuzt. 12. 82.
- Juan Uriarte, abuzt. 13.
- Ramon Mujika, abuzt. 14. 85.
- Esteban Juaristi, abuzt. 14. 78.
- Julio Arzelus, abuzt. 14.
- Isidro Ibarra, abuzt. 17. 93.
- Imanol Zabaleta, abuzt. 19. 75.
- Isidro Aretxaga, abuzt. 25.
- María Asunción Díez, abuzt. 27. 50.



Beheko estazioko zubira sartzeko, bariantean egindako karril berriak kotxe iladak murriztu azari ditu.

EGUZKI



Uda partean ia lehortu egiten da Deba Ibaiaren ubidea.

Deba ibaiak ur-etorri eskasa udan

Errekaren ur-etorria eskasegia dela salatu du Eguzkik

Elorregi inguruan, San Prudentzioko bidegurutzetik Ola ingurura arte, Deba Ibaiaren ur-etorria oso eskasa dela salatu du Eguzki talde ekologistak Ur Konfederazioaren aurrean. Eguzkiren esanetan, ekologiararen aldetik erreka batekin eraman behar duen gutxieneko ur-etorriaren azpitik dago Deba ibaiaren ur-etorria inguru horretan.

Talde ekologistaren esanetan ibaiaren ur-etorri eskasa, UCEM eta Altos Hornos enpresen kanalak errekatik hartzen duten urak eragin du. Hain zuzen ere, UCEM korpo-

razioak eraikitako zentral Hidroelektrikoak hartzen duen urak laga du ia ur barik Deba ibaia Eguzkik dioenez. Egoera larri honek eta Elorregi auzoko bizilagunek azaldutako kezkek (Deba ibaiak sasoi honetan ateratzen duen usai txarregatik batez ere) bultzatu dute talde ekologista salaketa egitera.

Gauzak horrela, Deba ibaia ur barik geratu ez dadin, Altos Hornos de Bergarari eta UCEMi errekkaren ur-etorria errespeta dezatela esijitzea eskatu dio Eguzkik Ur Konfederazioari.

◆ Musika Eskola

Musika Eskolak 5 urte baino gehiago duten guztientzat 1994/95 ikasturteko matrikula epea zabaldu du (nagusientzat kurtso berezi bat egongo da). Idazkaritza 9.30etatik 13.00etara izango da zabalik. Argibide gehiago 76 57 80 telefonoan jaso dezakezue. Ikasturtearen aurkezpena astelehenean, hilak 12, 17.30etan egingo da.

◆ Kofraixetako zozketa

Osintxuko Kofraixetako zozketan, 4.049 zenbakia Menorcara bidaia batekin saritua izan da. Boletorearen jabea antzuolar bat omen da.

◆ Zentsuko zerrendak

Irailaren 12ra arte 1994ko urtarrilaren 1eko hauteskunde zentsuko zerrendak erakutsiko dira Idazkaritzan 9etatik ordubietara. Sortu daitezkeen erreklamazioak horretarako emango diren inprimaki ofizialetan aurkeztu beharko dira.

◆ AEK Euskaltegia

AEK euskaltegiak datorren ikasturteko matrikula epea zabalik izango du datorren astetik. Interesatuek Masterreka 13an edota 76 05 18 telefonoan jaso dezakete argibide gehiago.

Amets



- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak.
- Zango erremolkeak.
- Era guztieteko kanping eta karabanentzako osagarriak.

Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50

AMETS TAILERRAK
Berezano auzoa OÑATI

EXUKUN

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6, ☎ 76 51 62
BERGARA

Pepelu

Ileapaindegia

Zurradero, 2 behe.
☎ 76 43 07

Barrenkale, 23 ☎ 76 29 65

ederTU
ALTZARIAK

Oxirondoko merkatua zabalik

Pasa den asteazkenean, irailak 1, inauguratu zen ofizialki merkatu berria. Horrela, bada, azken hilabeteetan hizpide izan den gaiari, Udalaren eta merkatarien artean tira-bira ugari sortarazi dituen gaiari, bukaera eman zitzaion. Hala ere, bada oraindik konpondu gabeko arazoren bat, baserritarrek, fruta saltzaileak eta saltzaile anbulanteak oraingoz merkatu berrira ez dirrela joango adierazi baitute.

Oxirondoko merkatu berriaren inaugurazio ekitaldian Victoriano Gallastegi alkatea, eta EAJ, EA eta PSE-EEko zinego-

tziak izan ziren. HBkoak ez ziren agertu. Xabier Zubizarreta Bergarako artziprestargo buruak merkatua bedeinkatu zuen eta Victoriano Gallastegi alkateak hitz batzuk luzatu zizkien bertara hurbildutakoei eta zorte on opa zien saltzaileei: "Hasierako proiektuarekin ezadostasun batzuk izan arren, merkatuak bartu duen itxurarekin gustora gaude" adierazi zuen alkateak.

Ranpa dela eta ez dela, arazoak

Bestalde, joan zen zapatuan baserritarrak, fruta saltzaileak eta tokiz-tokiko saltzaileak ez ziren Oxirondoko merka-

■ Irailaren lean inauguratu zuen alkateak

■ Baserritarrak, fruta saltzaileak eta saltzaile anbulanteak ez dira merkatu berrira joan

tura joan. Euren asmoa merkatu zaharrean saltzea zen, baina ezin izan zuten bertara sartu itxita zegoelako eta merkatu zaharraren kanpokaldean saldu zituzten beren produktuak. Udaltzainek, bestalde, legea ez

betetzeagatik zigorren bat jaso zezaketela adierazi zieten larunbatean bildutako 21 saltzaileei. Hain zuzen ere, Udalaren baimenik barik kalean saltzeagatik 50.000 pzt.a rainoko isuna eta autoritatearen aginduak ez betetzeagatik beste 25.000 pzt.a rainoko isuna jaso zezaketela adierazi zieten udaltzainek. Informea Udalean da dagoeneko eta alkatetzak erabakiko du isuna jarri edo zer egin. Saltzaileek, euren aldetik, normal-normal egin zituzten euren salmentak.

BERRIGARAK Lapatza baserriko saltzailearekin hitz egiteko aukera izan du. Bere esanetan: "Ranpa egin arte ez daukagu merkatu berrira joateko asmorik. Ez da kapritxo hartutako erabakia, orain dagoen montakargasarekin ezin dugu lan egin. Pentsatu behar da larunbatetan fruta eta beste eratako produktu ugari, pisu



Zorte on opa zien Victoriano Gallastegi alkateak merkatuko saltzaileei.

baundikoak, deskargatzen direla eta merkatu berria orain dagoen moduan egonda, ezinezkoa zaigu guzti hori deskargatzea, produktuak deskargatzen ordu piloan egon beharko ginateteke eta".

Eztabaidak sortarazi dituen ranpa joan den irailaren lehen eraikitzen hasi ziren eta alkateak inaugurazio ekitaldian esan zuenez: "Ranpa bilabete barru prest egongo da. Beraz, lau zapatutan eragozpenak izan ditzaizkete fruta eta barazki saltzaileek eta anbulanteek, baina kalean egotea baino hobe izango da edozein modutan. Lehenago eraiki ez bada, pertsonal faltagatik eta oporrak gainera etorri zaitzizkigulako izan da". Saltzaileek, euren aldetik, ranpa aspalditik eginda egon behar lukeela adierazi dute.

Gai honekin jarraituz, esan behar da egunero-egunero saltzen duten hiru baserritarrek ere merkatu zaharraren kanpokaldean egin dituztela euren salmentak bai astean zehar eta baita larunbatean ere. Udalak, oraindik libre dauden postu fijoetako bat eskaini die, astean zehar eta ranpa egin bitartean Oxirondoko merkatuan saldu dezaten, baina egoera horretan ez doazela adierazi dute baserritarrek.



Orain arte merkatu zaharrean saltzen aritu diren Bergarako hiru baserritarrek kalean egin dituzte euren salmentak egun hauetan.

Kontuak-kontu gauzak horrela daude: postu fijoak dutenek Oxirondoko merkatuan dira zabaldu zen egunetik, baina fruta eta barazki saltzaileek, anbulanteek eta baserritarrek merkatu zaharraren kanpokaldean egingo dituzte euren salmentak ranpa egin arte. Joan zen larunbatean harantz eta honuntz ibili behar izan zuten erosleek...

300 milioitako merkatua

Oxirondoko merkatuak azkenerako ia 300 milioi pzta. kostatu zaio Udalari. Hasierako adjudikazioa 1991ean egin

zen Jose Luis Elkoro alkate zela. Hiru solairu ditu. Lehen eta bigarren solairuetan 24 salmenta postu fijo daude. Bigarren solairuko 12 postuak hutsik daude eta lehenengoan 9 postu zabaldu dira (3 utzik daude). Guztira, 6 saltzaile dira oraingoz: bi arraindegi (bakoitzak postu bat eta erdi hartzen du), bi harategi, izoztuen salmenta postu bat eta okindegi bat. Prezioari dagokionez, postu bakoitzeko 4 milioi pzta. ordaindu behar izan dituzte saltzaileek. Horren truke, saltzaileak 25 urtetarako postuen jabe izango dira eta 40 urtera arte luzatu

al izango dute.

Beheko solairuan, bestalde, baserritarrek, fruta saltzaileak eta zapatuetan etortzen diren saltzaile anbulanteak kokatuko dira. 96 posturako tokia dago, baina oraingoz 14 baserritarren, 5 fruta saltzailearen eta beste era batzuetako produktuak saltzen dituzten 8 saltzaile anbulantearen eskariak jaso dira Udalean.

Bestalde, merkatu berriaren aldamenetan momentuan hutsik aurkitzen diren bi biltegi daude eta horietako bat larunbatean etortzen diren fruta saltzaileentzat egokituko da.

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...
 Irizar pasealekua, 2 behea
 ☎ 76 59 54 BERGARA

MAKAILO
 Makailau **ETXEA**
 kazuelak gertatzen ditugu
 Ibargarai 15

ONENA
TINDATEGIA
 Barrenkale 29, BERGARA

Elikadura

Kirola eta elikadura

- Udako patxada atzerantz uzten hasiak garenean, askok kirola egiteari ekiten diogu. Ondo elikatzea beharrezkoa da?

- Bai, kirola egiten dugun garaian elikadura ez egoki bat eramateak, zuzenki errendimendu fisiokoaren gutxitze bat dakar. Beraz, elikadura on bat ezinbestekoa da errendimendu fisiko on bat lortzeko. Elikagaiak "erregai"tzat ezezik, kirol ekintzan erabiltzen ditugun organuak eraikitzeko ere erabiltzen dituelako gorputzak.

- Elikagaien behar hori berdina al da kirol moeta guztietan?

- Ez, esfortzu minimo bat eskatzen duen kirol aktibitate laburretan (100 metroak, jaurtiketak, e.a.) energia gutxiago behar da intentsitate handiko eta iraupen luzeko frogak (maratoiak, krossa, e.a.) egiteko baino.

- Eta zein da elikadura egoki hori?

Dieta orekatu bat, hau da, denetarik jatea. Gehiegikeriarik gabe, bai kantitatean (kaloriak) eta bai kalitatean (bitaminak, proteinak, e.a.).

- Nola zehaztu dezakegu dieta hori?


- Froga baterako gertatzeko garaian, dieta mixto bat jarraitzea komeni da. Garrantzi handikoak dira karbohidratoetan aberatsak diren ja-

nariak (patatak, arroza, espagetiak...) energia ematen digutelako. Fruta ere ezinbestekoa da bertan ditugulako bitamina gehienak (oso gomendagarria da egunero hiru edo lau fruta ale jatea eta gutxienez bi, zitrikoak). Haragia jatea ere garrantzitsua da bertatik hartzen baitugu burdina gehiena eta beharrezkoak ditugun gatz asko ere bertan aurkitzen dira. Bestalde, kirola egiten badugu, egu-

"Oso komenigarria da egunero hiru edo lau fruta ale jatea eta gutxienez bi, zitrikoak"



Esfortzu handia egin ostean, likidoak hartzea behar-beharrezkoa da.



BITTOR RODRIGUEZ

(dietetika eta giza elikadura ikaslea)

nero 2 litro ur edatea ezinbestekoa da.

Entrenamendu garaiko elikadura eta froga aurreko egunetakoa antzerakoa da, baina froga baten aurreko egunetan karbohidratodun elikagai gehiago jan behar dira, erreserba energetikoak gainezka egon daitezten.

- Eta froga aurretiko orduetan?

- Froga bezperan jaten duguna oso ondo zaindu behar dugu, gosea kendu behar dugu urdaila gehiegi bete gabe eta arazoak sor ditzaketan janekin (saltsak) kontuz. Karbohidrato konplexuetan aberatsa izan behar da (patatak, espagetiak...) gatz edo koipe gutxirekin, haragi gutxirekin (edo batere ez) zeren hauek digestioa moteltzen dute eta ur edo likido ugari hartu behar ditugu.

- Eta karbohidrato sinplerik?

- Horrelakorik ez. Askotan azukrea, ezta eta edari "indartzaileak" hartzeko ohitura egoten da baina hori ez da komeni. Gure gorputzean azukre sinpleak sartzean erantzun bat eragiten dute. Odolean dagoen azukrea gorde egiten da, zeluletan. Horrela, odolean genuen azukre maila jeitsi egiten da, "erregaia" gorde egiten dugu, ezin dugu berehala erabili eta ondorioz, ez da errendimendua hobetzen eta lehenago nekatzen gara odolean erregai gutxiago dugulako. Beraz, froga hasi baino ordubete lehenago azukre sinplerik ez da hartu behar.

- Eta frogan zehar?

- Oso luzea bada (maratoi erdia, 10 km,...), 15 minuturo katilukada bat ur edo merkatuan ditugun edariak hartzea (100-200 ml.) komeni da, galtzen dugun ura erreku-peratzeko. Froga amaitu eta gero, indar galdua berreskuratu beharra dago, hortarako otordu oparo bat eta siesta luzea egitea da egokiena.

JARDUN eta Arrasateko AED euskara elkarteek antolatutako Gazte Akanpadan bilduko dira Deba Garaiko gazteak astebukaera honetan Degurixako zelaietan.

Aurtengoa antolatzen den bigarren aldia izango da: "Iaz 60 bat lagun bildu ginen eta primeran pasatu genuen, borregatik, aurten ere antolatze-*ra animatu gara*" adierazi digute JARDUNeko Gazte Taldekoek. Eguraldiak laguntzen baldin badu, aurtengo Gazte Akanpada iazko edizioa bezain arrakastatsua izango den esperantza dute antolatzaileek.

Akanpada ostiraletik, hilak 9, igandera bitartean egingo da eta irteera ostiraletan arratsaldeko 6retan Urkuluko urtegiaren sarreran egingo da. Parte hartu nahi duzuenok, bertara agertzea besterik ez duzue. Kanping dendak eta mantenua norbere kontura joango dira eta antolatzaileek akanpadak irauten duen egunetan jolasak eta beste zenbait ekitaldiren antolaketaren ardura hartuko dute.



Bailarako gazteek ondo pasatzeko aukera izango dute astebukaera honetan Degurixan.

Bailarako gazteak Degurixan bilduko dira

JARDUN eta AEDk antolatutako Gazte Akanpadan

Egitaraua ere prestatu dute: ostiraletan, esate baterako, jokuak, musika eta dantza gaua izango dute; larunbatean, berriz, goizean mendi irteera egingo dute, arratsaldean

olinpiadak eta afalostean, "gau prehistorikoa". Igandean, azkenik, ingurua garbitu eta Urkulura jeitsi egingo dira.

Antolatzaileek, dei egiten diete bailarako

gazteei akanpadan parte hartzeko, euren esanetan: "bailarako gazteen arteko barremanak sendotu nahi ditugu eta beste herri batzuetako gazte taldeen artean elkarlanerako lehen urratsak eman. Bestalde, iaz herri ezberdinetako gazteak elkartu ginen arren, herri bakoitzekoek bere taldetxoa osatu zuten eta aurten, kanpin denda guztiak nahastuta jar-tzen saiatuko gara".

"Ostiraletik igandera bitartean, mendi irteerak, olinpiadak, jokuak, musika edota dantza gaua Degurixan"



DEBA
GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar

T. Aranzadi, 2 behea. ☎ 76 21 80 - 76 06 37



GOXO-TOKI
D. Iraila, 3 - Tlf. 761235
Matxialategi, 34 - Tlf. 762337
BERGARA

KONDE



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

Jesus Mari Kalboetxeagak uda partea Perun pasa du, bertako egoera ezagutzeko eta bertakoei laguntzeko asmoz. Bere ogibidea kazetaritza izanik, Kalboetxeagak Peruko kazetaritza eta errealitatea ezagutzeko aukera izan du. Hilebete pasatxo eman ondoren Hegoamerikan, azaletik bada ere, hango esperientzia azaldu digu.

- Noiz eta ze helbururekin abiatu zinen Perurantz?

- Ekainaren 29an irten genuen eta helbururik nagusienarikoa bertako jendeari laguntza eskaintzea eta bitartean hango jendea ezagutzea zen. Halere, euren gandik asko ikasi dugu.

- Ze laguntza mota eskaini diezu peruarrei?

- Lehenik eta behin esan behar dut, Euskalerritik 8 pertsona abiatu ginela. Bakoitzak lanbide bat zuen eta helburua gure lan bera egiten zuen familia batekin bizitzea zen. Ni kazetaria naiz eta kazetaritzan aritzen zen langile baten familian izan nintzen.

- Normalean Perura ez da jende asko joaten, zuk zergatik aukeratu zenuen hara joatea?

- Guk Perura joan behar ginela esaten genuenean jendea nahiko harrituta geratzen zen. Lehenik eta behin duela bi urtera arte nahiko egoera txarrean bizi zirelako. Bestalde jendeak ez daki gauza asko Peruri buruz. Baina bidaia egiteko or-

duan gehien interesatzen zitzaidan gauza, bertako jendearekin izango genuen harreman estua zen.

- Perura heldu eta ze hiri ezagutu zenituen?

- Astebetez Liman izan nintzen. Han bertako bitalderekin, Adevi eta Tipacomekin harremanetan jarri ginen. Euren bitartez Perun zehar sakabanatu ginen. Ni Icaiko kazetari batekin jarri ninduten harremanetan eta bere etxean 12 egun egin nituen. Ica Limatik 5 ordu tara dago eta kazetaritzan nahiko jende dabil.

- Icara heldu eta nahiko gogorra izanda familia batetan sartzea...

- Autobusean joan nintzenean kazetari peruarra nire zain zegoen eta uste dut ezusteko ederra hartu zuela. Uste dut eurek kazetari espainiarra espero zutela eta horrekin batera, pertsona serioa, "ondo" jantzitakoa... Autobusetik txamarra zikin batekin irten nintzen, belarritakoarekin, motxilarekin, afeitatu gabe..., hasieran uste dut sustatu egin zirela, baina poliki-

poliki ondo konpondu ginen.


- Familia peruarren barruan sartu zinenen, ze lan egin zenuen?

- Nik, Carlos Caldasi (bere etxean bizi izan zen) Libertadores Guari herrialdeko kazetarien idazkari nagusia denari, ezagutu nahi nuen jendea eta ikutu nahi nituen gaiak proposatu nizkion. Gai horien artean giza eskubideak, elkarte herrikoiak eta ekologia zeuden. Carlos Caldasek kazetari eta elkarteetako

Perun

kazetari lanak egiten

Jesus Mari KALBOETXEAGA



"Helburua, gure lan bera egiten zuen familia batekin bizitzea zen"



40 egunetan zehar Kalboetxeagatik turismoa egiteko aukera ere izan zuen. Argazkian, Machu-Pichun ikus dezakezue.

jendearekin harremanetan jarri ninduen eta ekologista, feminista, kazetari, beltz mugimenduko kideekin, giza eskubide-etako jendearekin, nekazariekin...

- Komunikabideren batean lan egin al duzu?

- Ez. Ni Caldasekin joaten nintzen eta berak aurkezten zidan jende bat eta interesgarria iruditzen bazitzaidan elkarrizketak egiten nituen. Eurak harrituta gelditzen ziren nirekin eta niri ere egin zizkidaten elkarrizketa ugari. Gertatzen dena da, han herri komunikabide asko dagoela. Baina baliabide gutxi dituzte. Irratiek, hemengo irrati librean hainako baliabideak dituzte eta esate

baterako, Carlos Caldasek irrati pribatu batean bere ordu eta erdia erosten zuen eta publizitateari esker dirua irabazten zuen.

- Gauza ezberdinak ikusi ondoren, nolakoa da gaur egun Perun bizi duten egoera?

- 40 egunetan ezin da egoera ondo ezagutu. Orokorrean uste dut oso herri pobrea dela. Euren arazorik nagusia egunero jatekoa edukitzea da eta beste gauza batzutan pentsatzeko denbora gu-

txi dute. Kazetariei dago kienez, lehen esan dudan bezala oso baliabide murrizak dituzte eta zuzeneko kazetaritza egiten dute, inprobisazio askokoa. Halere baliabide falta hori gogo eta kritikarekin konpontzen dute. Kazetariak oso kontzientziatuta daude bizi duten egoerarekin eta kazetaritza ogibide bezala ulertu beharrean, jendea hezitzeko edo formatzeko erabiltzen dute.

- Enteratu garenez, aitabitxi eta guzti egin

zaituzte, Perun...

- Nirekin batera joandako neska baten familiakoek alaba bat zuten eta oraindik ez zegoen bataiatuta. Umea ondo konpontzen zen neska horrekin eta nola momentu hartan ni mutil bakarra nintzen, ba tokatu egin zitzaidan.

- Beste anekdotarik izan al duzu?

- Hasiera baten guttiak "periodista español" bezala aurkezten ninduten. Baina azkenean "periodista vasco" bezala aurkezten bukatu zuten. Eurek asko galdetzen zidaten hemengo egoeraz eta ni saiatzen nintzen hemengo egoeraren bi aurpegiak azaltzen. Baina azkenean eurek konturatzen ziren Euskalerrian sentimendu berezi bat dagoela. Beste behin ekologista batekin izan nintzen Francoren garaietan Madrilen izan zena eta Euskalerrian ezagutzen zena. Ezagutu bezain laister, esan zidan ni matematikak funtzionatzen ez duten leku batekoa nintzela. Berak esaten zuenez, Euskalerrian 3 gehi 4 bat da eta horrek peruarrei grazia asko egiten zien.

"Han herri komunikabide asko dago, baina baliabide gutxi dituzte. Irratiak, hemengo irrati librean adinakoak dira"

OILAGORRA
Taberna
 Barrenkale 21, BERGARA

ZUBIAURRE
 aroztegia
 SARRERAKO ETA BARRUKO ATEAK.
 HORMA ARMAIRUAK.
 EGURREZKO ETA PVC-ZKO LEIHOAK.
 ERA GUZTIETAKO AROTZ LANAK.
 Zubiaurre, 2 ☎ 76 15 14 / 76 35 73

PINTXO ETA BOKADILOAK
ETA SEKULARAKO MARTXA
EUXEBIO II
 Irala kalea z/g ☎ 76 07 92

Non igaro dituzu oporrak?




Javi Moreno
26 urte, langilea

Asturiasen, belero batetan ere ibili gara eta Estellan, lagunekin. Abuztuan zehar egun batzutako hainbat irteera egin ditugu.



Susana Larrañaga
10 urte, ikaslea

Hemen egon naiz. Lagunekin pizinetara joan eta han egun osoa pasatzen genuen.




Luis Ruiz de Egin
54 urte, langilea

Etxean, Bergaran. Bueno, Segoviara 4 eguneko irteera bat egin nuen.



Rosana Gutiérrez
38 urte, langilea

Malagan. Primeran; neri eguzkia gustatzen zaidanez eta nola hemen ez den egoten, hara joan behar...




Jesus García
42 urte, langabetua

Nafarroako Aras herrian bi hilabete egin ditut familiarekin. Opor lasaiak izan ditugu eta orain berriz lanera...



Idurre Lòpez Zubia
18 urte, ikaslea

Bergaran 15 egun eta gero Sorian, Laguna Negra eta guzti hori ikusten. Ondo pasatu dut baina hemen eguraldiak ez du asko lagundu...



POL-POL

TABERNA

☎ 76 07 78

DEPORTIVO

TABERNA

☎ 76 01 51

FS  **istema** *ApBéniz*
oto

**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi, 2 ☎ 76 00 50



Deba bailaran sokatiratik ez

Irailaren 8tik 11ra bitartean, Euskalerra eta bere ospe handia hitzetik hortzera ibiliko da Suedia aldean. Lurgaineko munduko sokatira txapelketa ospatzen ari da. Euskal Herritik nazio mailako ordezkaria gizonetan Nuarbe izango da eta emakumezkoetan Laukizko Gaztedi. Talde mailan, berriz, Laukizko Gaztedi mutil taldea eta Mutriku izango dira lehian.

Nuarbek ongi baino hobeto daki zer den urrezko domina jasotzea. Laukizko Gaztedi neska taldeak ere jakin badaki zilarrezko domina eskuratzea zer den eta zer nolako emozioa sortzen duen.

Aurten Suediako txapelketari begira aritu dira prestakuntza lanetan buru-belarri. Zalantzarik ez izan, zerbait onik ekarriko duenik etxera. Nazio mailan batez ere dema gogorra izango da, Ingalaterra, Irlanda, Suitza, Suedia, Holanda eta Euskadiren artean besteak beste. Nuarbek 560 kilotan dudarik ez izan, urrezkoa lortuko duela edo soka etengo duela.

Txapelketa hau aitzaki izanik, gogoeta txiki bat eraman nahi nuke Bergara aldera. Bergara, Oñati, Arrasate, Eskoriatza, Aretxabaleta, Soraluze, sei herri eta tajuzko sokatira talderik ez. Oñatin egon izan da, Eskoriatza eta Aretxabaletan ere bai, baina une honetan zer? Aipatu herri horietan ez al dago inizatibarik sokatira bultzatuko duenik?

Andres OSA "Sakona"



Wonderbrrrrrr...

Emakumearen eskotetik infernua ikusten da.

Horrelako esaldiak, era guztietako ideolojia eta erlijioek erabili izan dituzte.

Emakumeek orain era honetako ideiak baztertu eta gizonezko bat baino gehiago su garretara botatzea erabaki dute.

"Erruduna" Wonderbra izeneko sostena da, den-detako diru kutzak gori-gori jartzen ari den sujetadorea.

Zenbait inkestaren arabera, gizonezkoaren begiak emakumezkoa ikusitakoan beste edozein gorputz atal baino lehenago bularra ikusten du.

50. hamarkadan Sofia Lorenen titiak egin ziren ospetsu. Hippy garaia iritsi zenean ordea, lore artean lurperatu zuten emakumearen atalik aerodinamikoena. Eta orain, emakume androginoaren sasoia igarota, multinazional batek berriz ere urrezko eskotea erakusteko aukera eskeintzen du.

Feministak hasi dira manipulazio eta matxismoaz berbetan, estetika zentruak operaziorik gabe mirariak egiten dituen asmakizunarekin dardarka hasi dira eta beste asko sosten duntsua probatzeko irrikitzen gaude.

Jone LARRAÑAGA

TXISTU MOTOR

**KOTXE BERRIZKETAK
SKODA ZERBITZU BERRIA**



Volkswagen t Idea

Aribar Poligonoa. San Juan auzoa
☎ 76 09 31 BERGARA

BIZKOTXOAK. ERREILENOAK ETA TOSTOAK

Larrañaga

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R.S.I. 209374 - SS

BERGARA



TOSHARE

• ILEAPAINDEGI MISTOA •
• ESTILISTA •

Artekale, 29 behea
Tfnoa: 76 29 70
BERGARA




Larunbatean Aloña-Mendiren aurka zelairatu zen hasierako hamaikakoa.

Lehen garaipena

Bergara K.E. ko nesken futbol taldeak 3 eta 0 irabazi zion aurreko larunbatean Aloña-Mendiri, Ipintzan jokatutako adiskidetasun partiduan. **Bittor Agirrebarrena** eta **Félix Barrocalen** taldeak igande honetan bertan ligan (15 talde izango dira guztira) debutatuko du, 4retan, Donostiako Matigoxotegi futbol zelaian, Intxaurrendoren aurka. Larunbatekoa ikusita, badirudi fin helduko direla bergarar jokalariaiek lehen partidu horretara; ez zuten inolako eragozpenik izan txantxikuarrak 3 eta 0 menderatzeko. Lehen gola **Agurtzane Letek** egin zuen (makurtuta, lehena eskumatik) eta gainontzeko biak 2. zatian zelairatu zen **Hiart Ibarluzeak**. Ea ba, eutsi sasoiari!!

Intsumisioaren lagunak

Datorren urriaren 9an Oiartzunen izango den "Intsumiso Eguna 94" dela eta, Kakitzat koordinakunde antimilitaristaren barruan dagoen Bergarako Objeto Talde Antimilitaristak "Hemen intsumisioaren lagunak" izeneko kanpainari ekin diote. Kanpaina honetan parte hartu nahi duten taberna eta dendek 1.500, 3.000 eta 5.000 pezetako laguntza bonoak erosteko aukera izango dute. Laguntza hori Intsumiso Egunaren antolaketarako bideratuko da; helburua aipatutako egunean giza sektore guztiak jai egun errebindikatibo batean biltzea da.



Denda edo taberna laguntzaileetan, laguntzaile direla adieraziko duen anagrama ipiniko da.

LIZAR
altzariak
Dr. Fleming 5, Tfnoa: 76 16 53

Maxim's
☎ 76 20 61

Mujika
Jantxidenda
Barrenkale 1, Tfnoa: 76 29 91



Bedelkarreko zozketa

Bedelkar Bergarako Dendarien Elkarteak uda aurretik eginiko zozketan, **José Sánchezek** 250.000 pta.ko saria eramán zuen (argazkian Gaztelu burdinakidendako **Hilario Aranzabal** eta Bedelkarreko presidentea den Rafael Herranen artean agertzen da); bigarren saria (100.000 pta.) **Ana Maria Díezek** eskuratu du eta, azkenik, hirugarrena (**Banco Santanderreko** 100.000 pta.ko pentsio plana), **Elizabeth Pinedarentzat** izan da. Zorionak hirurei!!

Estropadak

Bergarako **Jubilatuek** Donostiako estropaden finala ikustera joateko irteera egingo dute igande honetan. 2.000 pta.ren truke, goizeko 9.30etan



Donostiara autobusez aterako dira, ondoren Liburu Azokara bisitalditxo bat egin, 12etan estropadak ikusi eta jarraian Aizkorri jatetxean bazkaltzeko bilduko dira. Arratsaldeko 7.30etan herrira itzuliko dira. Ez dakiguna da noren alde egingo duten igandean Conchan... San Pedrozaleak izango ote?

Zertan dibardute ba?



KINU

Jon Andueza Iñurrategi 14 urteko bergarar gaztea Real Sociadadeko kadeteen futbol taldean arituko da aurtengo denboraldian. Jon 9 urterekin hasi zen futboleán jokatzén eta pasa den uztailéan Real Sociadadeko begiraleén deia jaso zuén. Ilusio haundiz, abuztuán eta iraileán Donostian entrenatzen ari izan da. Jonek libero postuan jokatu izan du Aranzadi Ikastolan (BBBko lehen maila hastera doa) eta Bergara K.E.ko taldeetan. Denboraldian zehar Arrasaten entrenatuko du Rauleaga entrenatzailearen agindutara.

MAHER
Biltegiak L.E.
Oihal etxea
Bidekurutzeta 29
Tfnoa: 76 22 90 - 76 26 75

GURIA
Taberna
Bidekurutzeta 5,
Tfnoa: 76 20 34

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia
Bidekurutzeta 24, Tfnoa: 76 13 35
BERGARA

Ainhoa Agirreazaldegi

Ipintza Institutuko ikaslea, Ainhoa Agirreazaldegik (16 urte) zazpi urte daramatza bertso munduan. Hurrengo larunbateko (hilak 17) bertso saioan bera izango da emakume bakarra.

- Zein izan da zure maisua bertsolaritzan?
- Bertsolaritza orokorrean. Hainbeste maisu egon dira...
- Bertsolari gazteak ala zaharrak?
- Gazteak.
- Euzkitze ala Sarasua?
- Sarasua.
- Bertsolari gustokoena?
- Andoni Egaña.
- Bertso saioak ala bertso afariak?
- Bertso afariak.
- Plazarik onena?
- Giro polita dagoen edozein.
- Norekin joaten zara txapelketetara?
- Gurasoekin edo Leintz Bailarako bertsolari gazteekin.
- Bezperan, zenbat ordu lo?
- 8-9 bat, beti bezala.
- Eta burua argi edukitzeko?



"Andoni Egaña da gehien atsegin zaidan bertsolaria eta nahiago ditut bertso afariak bertso saioak baino. Bertsotarako onena egun normal bat eraman eta despejatuta egotea da. Udan Alemanian eta Austrian izan naiz"

- Egun normal bat eraman eta despejatuta egon.
- Potorik egin duzu inoiz?
- Bai. Anekdotak bezala, nere lehen bertsoa jende aurrean 3 potoz osatuta egon zen.
- Nolako gaiak gustokoago?
- Zeresana dutenak eta imajinario gehiegi behar ez dutenak.
- Bertso bat bapatean gertatzeko zenbat denbora?
- Bukaera eta 3 oin topatzen behar duzun denbora.
- Noiz emakume bat txapeldun?
- Beharbada inoiz ez baina ez da loa kentzen digun kontua.
- Non igaro dituzu oporrak?
- Alemanian eta Austrian.
- Parrandarik egin duzu?
- Bai, onena aurreko larunbatean, Hernanin.
- Ikasle ona zara?
- Notek horrela esaten dute baina eguneroko bizitzan, normala.
- Eskolara bueltatzeko bertso bat.
- Berriz kurtsoa gainean dugu/ udara on baten truke/ egia esan sortu dezake/ sorpresa asko, hainbat kalte/ hala ta guztiz udara bezain/ lasai hartu ezazute/ uste baino lehen pasatzen dira/ bederatzi hilabete.

79 Euskal Preso BAHITURIK Tartean Bergarako 5 hauek



Mikel OSA
ALDEKOA



Maite GURIDI
ELEXPURU



Jose Luis LOIDI
LARRAÑAGA



Bittore AIERBE
SARRIEGI



Pedro BELASTEGI
ZUBIA


**Aske egon beharko lukete honez gero,
kondenaren 3/4ak bete baitituzte**

Bergarako Amnistiaren Aldeko Komitea 

BONOFOTOA



M. A. ELKOROBREZIBAR



Elisa Azkarate

Elisa Azkaratek jaso du aste honetan BONOFOTOko saria, azken Bonofotoko galdera berak asmatu du eta. Argazkian agertzen zen baserriaren izena galdetzen genizuen eta erantzuna **Arane erdikoa** zen. Beraz, aste honetako **10.000** pezetak **Elisa Azkarate**ntzat. Zorionak!!

Non aurkitu ditzakegu bi iturri hauek?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria:
10.000 Pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen:

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

INGELESA eta FRANTZESA

- Maila guztiak
- Azterketen prestakuntza
- Ikastaro trinkoak
- Umeak, gazteak eta helduak
- **KURTSO HASIERA: Urriak 3**



**MATRIKULA
ZABALIK!!**



INFORMAZIOA:
Begarako UNED (3. pisua)
☎ 76 06 87

Bertso Jaialdia

Irailak 17, larunbata
Gaueko 10.30etan
MARIAREN LAGUNDIAN

Andoni Egaña
Xabier Euzkitze
Angel M. Peñagarikano
Unai Iturriaga
Iokin Sorozabal
Ainhoa Agirreazaldegi
Gai jartzailea: Joserra Gartzia

ANTOLATZAILEA:



LAGUNTZAILEAK:
Begarako Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia

SARRERAK OHIZKO TOKIETAN SALGAI
Aldez aurretik: 600 pzta. / Takilan: 700 pzta.

Iñigo Idarretak Bergarako frontoiaren esplotazioaren ardura ez du lagako

Dublang, Ugarte eta Catalanek ez dute errentan hartuko

Iñigo Idarretak, Bergarako frontoiaren esplotazioaren ardurarekin jarraituko du aurrerantzean ere. Azken egunetan kontrakoa entzun bada ere, ez ditu errentari berriak hartuko eta Udal Pelotalekua berak jestionatuko du joandako urteetan egin duen bezala.

Tiburcio Gabilondoren oinordekoa, Udal Pelotalekua Fernando Dublang, Fernando Ugarte eta Iñaki Catalani frontoia errentan uzteko negoziaketetan ibili bada ere, azkenean bertan bera geratu da gutzia.

Idarretak sarritan aitortu du frontoira gero eta jende gutxiago doala. Ho-

ri gutxi bada, 1992. urtean ASEGARCE sortu zen ezkeroztik pelota enpresa zaharren kezkak areagotu egin dira. Idarretak frontoiaren ardura uzteko asmoa duela ez da gaurko kontua baina orain arte egindako tentaldiak hutsean geratu omen dira, baita azkenengo hau ere.

Bergarako Udala da pelotalekuaren jabea eta alkatetzak eskuetan zuen frontoiaren esplotazioaren arduradunetzatko Idarretak egindako txostena. Hala ere beste baterako utzi beharko di-



Idarreta Udal Pelotalekuko errentari izaten jarraituko du.

ra paper guztiak.

Beraz, Dublang, Ugarte eta Catalanek ez dute frontoia errentan hartuko, horren zer-

gatia azaltzerik ez dugun arren.

Bestalde, uda honetan hastekoak ziren frontoian egin beharreko obrak, bai-

errentari aldaketak kontu honek zerrikusia izan dezake atzerapen horren.

Hil honen 17an emango zaio hasiera Labegaraietako Futbito Txapelketari. Partiduak jokatzeko ordu liberrik ez dagoela eta, arazoak izan dira aurten liga antolatzerakoan. Labegaraietan igandetean bakarrik jokatu ahal izango dira partiduak eta antolatzaileek herriko beste toki batzuetan jokatzeko aukerak aztertzen ari dira.

Taldeak osatzeko orduan aldaketak izango dira aurten. Lehen mailan 10 ekipoz osatutako bi multzo osatuko dira eta bigarren mailan, berriz, hiru: bederatziko bi eta zortziko bat.

• Txinpartak • Txinpartak • Txinpartak •

TXIRRINDULARITZA

Igande honetan goizeko 9etatik aurrera jokatu da bigarren mailako afizionatuentzako XXIX. San Martin txirrindularitza proba. Inguruko herrietatik zehar ibili ondoren, eguerdi parteterako iritsiko da irabazlea Ibargaraiko helmugara.

ASIER GARITANO

Asier Garitano futbolari bergarra oso gustora omen dabil Andaluzian. Aurrendenboraldi bikaina burutu du Cádizekin, bere ekipa berriarekin. Garitano telebistaz ikusi al izan genuen abuztuko azken egunetan Carranza sarian

Real Madrilen eta Sevillaren aurka. Eta bere taldea bezalaxe bergarra ere oso ondo aritu zela esan dezakegu, horren lekuko D'Alessandro jokalarizandakoak telebistan komentarioak egiten ari zela Asierri buruz esandakoa: "Aspaldian ikusi dudana penaltirik onenetarikoa jaurti du Garitanok". Cadizek, berak antolatzen duen saria eskuratu zuen lehen mailako taldeen aurka nagusitu ondoren. Zorionak!

AGUSTIN ARANZABAL

Zorion agurrak bidali nahi dizkiogu halaber Agustin Aranzabali. A ze nolako denboraldi hasiera egin du-

en! Compostelaren aurka 94-95 denboraldiko lehen partiduan nagusitu zen Realaren hamaikakoan izan zen eta Toshackek, bergararrarengan konfiantza osoa duela argi utzi du aurrendenboraldian zehar ere. Hori gutxi balitz, 21 urtez azpiko Espainiako selekzioaren hamaikakoan izan genuen asteazkenean Chipreren aurka.

Agustin pozik baldin badago pozaz zoratzen daudenak Bergara K.E.ko agintariak dira, elkarteak 200 mila pzt. jasoko baititu Aranzabalek Espainiako selekzioarekin debutatzeagatik. Ez dago gaizki.

FUTBITOIA

de

Aurreneko postuetan bukatzea du helburu Bergarak

Bergara K.E. ko futbol talde nagusiak aurreko larunbatean ekin zion 1994-95 denboraldiari. Lehen partidua Rotetaren aurka 1 eta 0 galdu arren, Javi Pérez eibartar entrenatzailea, bere bigarren denboraldian, baikor azaltzen da bergarar zalegoaren ilusioak pizteko orduan. Lehen zita, igandean 5etan, Agorrosin, Muniberen aurka.

- Zer nolako aldaketak egon dira plantilan?

- Bueno, baijeki dagokienenez, honako hauek ez dute gure artean jarraituko: Juanjo (Durango), Boni (Aloña-Mendi), Bittor (Ermua) eta talderik gabe dauden Atano, Fran eta Alatzek. Era berean Gómez de Segura eta Elorza anaiek futbola uztea erabaki dute. Altak, berriz, honako hauek dira: Lauri (lehen errejionala) eta Amador (Elgoibar) atezainak, Zabaleta defentsa (Aurrera Ondarroat), Garro erdilaria (Mondragon), Zuazua (Zarautz) eta Carrasco (Eibar) aurrelariak eta Etor eta Muru (lehen errejionala) eta jubenetatik igo diren Josetxo, Joseba eta "Txonan".

- Nahi ziren fitxaje guztiak egin dira?

- Batez ere aurrekaldea osatzea nahi genuen.

Aurreko denboraldian gol gutxien jaso zuen taldea izan ginen baina aurrean jokalaririk erabakikor

bat falta izan zitzaigun. Otxoa eta Arana (Aretxabaleta) eta Ikerrekin (Mondragon) harremanetan izan gara baina ez da akordiorik lortu eta, egia esan, ez dugu lortzerik izan aurrekalderako nahigenuena. Atezain postua, berriz, Lauri eta Amadorrekin ondo beteta dagoela esango nuke. Nahiz eta Amador hasi jokatzeko, ez dago batere garbi nork izango den titularra.

- Zer galdu eta zer irabazten du taldeak aurreko denboraldiarekin konparatuz?

- Argi dago Juanjo eta Gómez de Seguraren (2. entrenatzailea orain) baijak asko igarriko ditugula. Juanjok ezkerretatik min asko egiten zuen eta Ibon Larrañaga errekupe-ratu arte behintzat faltan botako dugu. Gómez de Segura guztiok ezagutzen dugu: esperientzia haun-

■ JAVI PEREZ: "Aurrekaldean jokalaririk golegile bat falta zaigu"



Javi Pérezek Juan Carlos Gómez de Segura izango du laguntzaile.

Usoa Pub

Tfnoa: 76 38 57
Irala 1

IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia.
Bioter produktoak eta haziak.**

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA



Bergararen aurpegi berriak. Zutik: Garro, Amador eta Zuazua. Makurtuta, Carrasco eta Zabaleta.

diko jokalaria da eta hori oso garrantzitsua da honelako kategorietan. Beselako bajak gutxiago igarriko dira. Fitxaje berriei dagokienez, Zabaletak sendotasuna emango dio defentsari eta horrela Makik erdikaldean jokatu ahal izango du; Garro teknikoki ona da eta Bonik egiten zuen lana bete dezake; Zuazuak oraindik ez du jokatu 4 partiduko zigorra daukalako eta Carrasco teknikoki oso ona da eta aurrean jokatzeko errekursoak dauzka, nahiz eta aurreko denboraldi osoan geldirik egon. Ea Gómez de Segura ordezkatzan duen... Gai nontzekoek ea aprobeztatzen dituzten aurkezten zaizkien aukerak esperientzia hartzen joateko. Plantila konpentsatuago bat egiten saiatu gara eta alde hortatik iaz baino hobeto gaude: guztira preferenteko 17 fitxa

eta lehen errejionaleko beste 6 izango dira, azken hauek lehen errejionaleko taldearekin ere jokatzen aukera izan dezaten.

- Eta talde honekin noraino iritsi daiteke?

- Nik taldea ondo ikus-

ten dut, nahiz eta aurrelari on baten falta izan. Blokea joan zen urtekoa da eta liga amaierara arte aurreneko postuetan borrokan egotea gustatuko litzaiguke. Iaz 10 partiduko faltan deskolgatuta gertatu ginen eta motibazio zerbait galdu genuen. Azken momentura arte aukerak izatearekin konformatzen naiz, nahiz eta kategoriatan oso nekeza eta gaizki egina dagoen, talde bakar batek bakarrik lortzen baitu igoera.

- Taldeak etxean ala kanpoan jokatzen du hobeto?

- Nik uste dut berdin jokatzen dugula, ez dago diferentziarik sistema bera erabiltzen baitugu kanpoan eta etxean. Jokalariak ondo ezagutzen dute sistema dagoeneko, iaz

bezala jokatu dugu eta hori abantaila bat da; baina partidu on bat jokatzeko askotan arerioen menpe dago. Guk ahaleginak egiten ditugu ondo jokatu eta irabazteko. Gure asmoa etxean zein kanpoan ondo jokatzeko da. Iaz partidu onak jokatu genituen Agorrosinen eta etxetik kanpo ere puntu dexente lortu genituen, 5 positiborekin amaitu bait genuen.

- Bukatzeko, afizionario zer esango zenioke?

- Taldearekin egon eta gehiago animatu dezala. Jokalariak txaloak entzun ditzatela noizean behin, arbitroari ere zenbaitetan protesta egin diezaiotela... Azken finean, futbolerako giroa egon dadila Agorrosinen, horrekin konformatzen naiz.



Bergarak gaizki hasi du denboraldia Rotetaren aurka 1 eta 0 galdu baitzuen larunbatean.

GOIERRI

Autogidarien eskola

Fraiskozuri Enparantza 5

Tfnoa: 76 41 50

BERGARA



Gizon Emakume

Barrenkale 35 BERGARA



Institutoko ikasleen ikasbidaia

Institutoko B.B.B. 3. mailako ikasle talde batek 1977-78 urtean Iparraldera, Kanbora egindako 3-4 eguneko bidaiari ateratako argazkia duzue. Atzean dutena, Edmond Rostanden palazioa da, "Cyrano de Bergerac"en idazle famatua.

Ikurrina agertzeari buruz, esan behar da 1977ko urtarrilaren 18an legeztatu zela, argazki hau atera baino urtebete pasatxo lehenago. Nahiko nahasian baldin badaude ere saiatuko gara, aurretik atzera eta ezkerretik eskumara, daudenen izenak ematen:

Lehen ilaran: Eba Agirre, Agurtzane Arriola, Laura Etxaniz, Maria Eulalia Idigoras, Itziar Balzategi eta Juan Jose López.

Bigarren ilaran: Mari Jose Briongos, Itziar Aranzabal, Izaskun Zeziaga, Alberto Aranzabal, ezezaguna, Lurdes Arregi, Imanol Urzelai, Kontxi Isasi irakaslea eta Josean Iza.

Hirugarren ilaran: Agurtzane Barrutia, Mari Paz Larrañaga, Josune Alberdi, Amaia Lazkano eta Agurtzane Azkarate.

Laugarren ilaran: Mirabe Iturrospe, Joseba Leturia, irakaslea, ezezaguna, Miren Irazola, ezezaguna eta Juan Karlos Arietaleaniz.

Ezkerraldean ikurrinaren ondoan: Jon Larrañaga, Aitor Gorosabel eta Clara Eugenia Domínguez.

Estepan Plazaola

Argazkia: Imanol Iriagarai

Iletxo Ileapaindegi
mistoa

BEGOÑA ARZELUS

Fleming Doktorea, 7 ☎ 76 53 15
20570 BERGARA

LETE

TOLDOAK

Zubieta, 36 ☎ 76 12 24
☎ 76 23 83 ARRASATE

AGIRREBEÑA

*Oinetakoak
Erropa denda
Lenzeria*

Urteaga 5, Tfnoa: 76 18 29

ETXEBIZITZA

Pisua salgai Donostin, Amara Berrin. Eguzkitsua. ☎ 46 36 53 (19-22.00).

Garajea salgai Torreku-an. ☎ 76 18 82.

Pisua salgai Artzamendin. ☎ 76 44 60.

Pisua alokatzen da Barrenkalen. ☎ 76 44 34.

Pisua salgai Zubiaurren. ☎ 76 25 19.

Pisu amueblatua alokatzen da Matxiategin. ☎ 76 46 15.

Zubiaurren **pisua alokatzen da**. ☎ 76 13 85.

Garajea salgai Ibargarai kalean. ☎ 76 00 93.

Oporrak Zarautzeko etxe batetan igarotzeko aukera. ☎ 13 28 49.

Pisua salgai Martokon. ☎ 76 14 60.

Pisua salgai Zubiaurre 23an. ☎ 76 31 49.

Pisua salgai Artzamendi 17n. ☎ 76 10 55.

Pisua alokatzen da Kruz Gallastegin. ☎ 76 49 87 (eguerdian eta gauz)

Pisua alokatzen da San Pedro 22an. ☎ 76 13 23.

Garajea salgai Ibargarain. ☎ 76 36 69.

Pisua salgai San Miguel kalean. ☎ 76 02 13 (goizez).

Garajea salgai Kruz Gallastegin. ☎ 76 48 36.

DENETARIK

Bergaran pisua konpartitzeko neska bat behar da. ☎ 76 30 09 (Araceli).

Opel Kadett 1800 salgai. SS-AH. ☎ 76 58 28.

Kanpin denda haundia (8 pertsona) salgai. ☎ 76 26 73.

Ume kotxea salgai (altua eta osorik). ☎ 76 57 74.

Erleak saltzen ditut. ☎ 76 34 28.

Bilbon (Autonomia kalean) pisua osatzeko neska bat behar da. ☎ 76 14 31.

Korredore **bizikleta** salgai. ☎ 76 54 24.

ESP Horizon baxoa eta Marshall JCM 800 anplia salgai. ☎ 76 56 61 (Ibon).

21 urteko **neska** batek edozein motatako **lokalak garbituko** litzuzke. ☎ 76 51 76 (Leire).

Aluminiozko **Conor mendiko bizikleta** salgai. Estreinatua gabe, 60.000 pta. ☎ 76 36 03 (Iosu).

Algortan pisua osatzeko bi neska behar dira. ☎ 76 41 59 (Amagoia).

Trial Ossa (350 cc.) motoa salgai. ☎ 76 37 42.

Igeltseritza lanak egiten dira prezio onean. ☎ 76 17 55 (21.00-23.00).

Donostian (Grosen) pisua konpartitzeko bi neska behar dira. ☎ 76 30 00.

Renault 5 GTL SS-O kotxea salgai. ☎ 76 30 10.

Ordenadore merke bat erosiko nuke. ☎ 76 08 19.

LANA

OHO eta BBBko klaseak. ☎ 76 17 85 (Asier).

OHO, BBB eta LH klaseak. ☎ 76 06 50 (Josean).

OHO eta BBB klaseak. ☎ 76 24 31.

Aleman klaseak, itzulpenak eta titulazioa. ☎ 76 12 77 (Maite).

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 42 36 (Arantxa).

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Matematika, fisika, kimika klaseak. ☎ 76 44 34.

Ingeles Filologian lizentziatuak, ingeles klaseak eman go litzuzke. ☎ 76 17 36.

Ingelesezko klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Matematika finantziario klaseak. ☎ 76 05 43 (Miren).

OHO eta BBBko klaseak. ☎ 76 42 08 (Nere).

Neska euskalduna behar da neska-mutikoak zaindu eta etxeko lanak egiteko. ☎ 76 29 81.

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 26 63.

Hildakoak

Santiago Olejua Arzof
irailak 4, 67 urte

Jaiotakoak

Jon Alberdi Lasa
irailak 1

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Orain SORALUZEN

EZPELETA
etxea

Harizko eta kotoizko goimailako izara eta mantelak

Barrenkale 44 BERGARA

ZUBIETA
elektragarintza

✓ Motorren bobinaketa
✓ Era guztietako instalakuntzak
Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

PENTSATU GABE

94-95erako EUSKARA IKASTAROAK

Maila guztiak: EUSKALDUNTZEN, ALFABETATZEN eta EGA

ERRITMOAK

Egunero 2 ordu

Egunero 3 ordu

Egunero 5 ordu

IRAUPENA

Iraila-Ekaina

Iraila-Ekaina

Iraila-Otsaila

PREZIOAK

24.200 pzta

36.300 pzta

32.900 pzta

Bekatzeko sistema eta dirulaguntzak ditugu. Galde ezazu.

MATRIKULALDIA

Irailaren 1etik 15era arte


BULEGO ORDUTEGIA

Goizez: 08.30-12.30

Arratsaldez: 14.30-19.00

16 URTEZ GORAKOENTZAT

BERGARA
UDAL



EUSKALTEGIA

ZABALOTEGI, 13
Tfnua eta Faxa: 76 44 53